

DIRU-ITURRIAK

Hasierako inbertsioaren guztizkoa honakoa da:

- **GUZTIRA: 1339,81€**

Inbertsio hau ezinbestekoa da enpresa jarduera egoki batean hasteko.

Hasierako inbertsioa ez denez oso altua, lauon artean osatuko dugu, bakoitzak 334,95€ jarritz. Horrela, interesak saihestuko ditugu, eta enpresa aurrera eraman ahala, dirua berreskuratuko dugu.

Gutxieneko diru-sarrerak

Pantailak fabrikatzen hastean eta enpresa martxan jartzean, hilabetero gastu guztiak estali ahal izateko, enpresak **hilero gutxienez 8792,40€** fakturatu beharko ditu. Zenbateko horrek gastu nagusiak estaltzea ahalbidetzen du, baina **irabaziak lortzeko**, beharrezkoa izango da:

- Hozkailu gehiago saltzea
- Salmenta bolumena handitzea
- Gastuak optimizatzea

Helburua ez da soilik gastuak estaltzea, baizik eta **etekina lortzea eta negozioa haztea**.

Esan bezala, Bosch-ek hozkailuak egingo ditu baina Samsung izango da gure aplikazioa pantailaren, kamaren eta beste osagarrien bidez martxan jarriko duena, guk ideia salduko diegu eta aplikazioa garatuko dugu, baina haiek salduko dute aipatutako dendetan (MediaMarkt, Alcampo...) eta beraz, haien irabazien zati bat guretzat izango da.

Irabaziak eta saldu beharreko kopuru minimoa jakiteko mekanismo osoaren kostua jakitea ezinbestekoa da:

-Bosch-en hozkailuak 1000€-ko prezioa du

-Samsung-ek muntatuko duen pantaila eta mekanismo osoa duen hozkailu berezia izateagatik (gure ideia) 250€ gehituko zaizkio (gure ideiarekin prezioa), baina hura egiteko kostua hau da:

- Sentsoreak 9,49€
- Kamara 30,99€
- Pantaila 115,99€
- Bozgorailua 10,99€

Guztira: 167,46€

Beraz, Bizihotz hozkailuaren merkaturatze prezioa 1250€-koa izango da, baina hozkailuaren zatiak ez gaitu baldintzatzen, gure irabaziak pantailaren mekanismotik etorriko baitira. Soilik pantaila edo mekanismo inteligenteak esan bezala 250€ko prezioa baina 167,46€-ko kostua izango duenez, zati horren edo Samsungen irabazia 82,54€-koa izango da, eta haiek %30 jasoko dute (24,76€), beraz guk %70 (57,77€).

Hau jakinda, hau da, saltzen den hozkailu bakoitzeko 57,77€ irabaziko ditugula, hilabetero gutxienez 153 hozkailu saldu beharko dira 8792,40€-ko gastuak estaltzeko, eta hortik aurrerako guztia irabaziak izango dira.